DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gizarte Ekintza / Acción Social

Easo, 41 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2021/019 esp.

GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ETA ARLO PSIKOSOZIALEKO ARRETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ATENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y PSICOSOCIAL

1.- SARRERA

1.- Donostiako Udalaren Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzuak (PHFZ), babesgabetasun egoeran dauden familien eta adingabeen arreta hobetzeko prozesuan, esku hartze prozeduren eraginkortasuna aztertzeko prozesuari ekin zion bere garaian. Prozesu horretan egiaztatu zenez, badaude gure inguruan ezagutzen eta aplikatzen ez ziren hainbat metodologia, eta haien emaitzak bermatuta daude, zientifikoki egiaztatutako azterlanen arabera.

Hausnarketa horien emaitza gisa, ikusi zen ebidentzian oinarritutako programak ezartzeko prozesuari ekin behar litzaiokeela. Bi programa hautatu ziren: Safe Care eta Invictble Years. Eta jardunbide profesional horiek gure testuinguruan duten eraginari buruzko azterlana egin ondoren, ondorioztatu da emaitzak onak direla eta beste herrialde eta testuinguru batzuetan ikusten direla.

Duela gutxi Udalak programa bat gaineratu du, Attachment Videofeedback Intervention (AVI) izenekoa, eta gaur egun fase esperimentalean eta pilotuan dago.

Ebidentzian oinarritutako programak ezartzeko prozesu honetan, Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzuak erabaki du programa horiek ezartzen jarraitzea, UPV/EHUrekin elkarlanean; zentzu horretan, 2019an lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten Udalak eta Unibertsitateak. Halaber, erabaki da beste programa batzuk identifikatzen eta aplikatzen jarraitzea, familietan esku hartzean eragin positiboa izan dezaketelako.

Programa horiek ahuldade egoeran eta

1.- INTRODUCCIÓN

1.- El Servicio de Prevención, Infancia y Familia (SPIF) del Ayuntamiento de San Sebastián, en su proceso de mejora de la atención a las familias y menores en situación de desprotección, inició en su momento un proceso de análisis de la eficacia de sus procedimientos de intervención en el que se constató la existencia de metodologías diferentes a las conocidas y aplicadas en nuestro entorno y que garantizaban sus resultados según estudios científicamente contrastados.

Fruto de estas reflexiones, se vio la necesidad de iniciar un proceso de implantación de programas basados en la evidencia. Se seleccionaron dos programas: Safe Care e Incredible Years. Realizado el estudio sobre el impacto de estas prácticas profesionales en nuestro contexto, se ha podido concluir que los resultados son positivos y están en otros países y contextos.

Recientemente el Ayuntamiento ha incorporado un nuevo programa denominado Attachment Videofeedback Intervention (AVI) que se encuentra en fase experimental y piloto.

En este proceso de implantación de programas basados en la evidencia el Servicio de Prevención, Infancia y Familia ha decidido continuar con la implantación de dichos programas en colaboración con la UPV/EHU con la que ha suscrito un Convenio de Colaboración en el 2019. Asimismo, se está trabajando en la identificación y aplicación de otros programas que puedan tener un impacto positivo en la intervención con las familias.

Estos programas deben responder a las

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gizarte Ekintza / Acción Social

Easo, 41 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

babesgabetasun arriskuan dauden familien eta adingabeen beharrak aintzat hartu behar dituzte, gurasotasun positiboa behar bezala gauzatzen laguntzeko.

necesidades de las familias y menores en situación de vulnerabilidad y riesgo de desproteccion para favorecer el ejercicio adecuado de la parentalidad positiva.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

2.- OBJETO DE LA CONTRATACIÓN

Dokumentu honek Donostiako Udalaren Gizarte eta Hezkuntza arloko eta arlo Psikosozialeko Arreta Zerbitzuaren diseinua eta jarduera ezartzen ditu. Zerbitzu horrek gizarte eta hezkuntza laguntzako eta/edo laguntza psikosozialeko prestazioak eskaintzen ditu (banakakoak, familiakoak eta/edo taldekoak), familiaren etxean nahiz komunitate ingurunean.

Este documento establece el diseño y actuación del servicio de "atención socioeducativa y psicosocial " en el municipio de Donostia - San Sebastián, definido este por un conjunto de prestaciones de apoyo socioeducativo y/o psicosocial, de carácter individual, familiar y/o grupal, que pueden desarrollarse tanto en el domicilio familiar como en el entorno comunitario.

Ahuldade egoeran, babesgabetasun arriskuan eta babesgabetasun egoeran dauden familien eta adingabeen gizarte egoerei erantzuna emateko, helburu hauekin:

- Familiako elkarbizitza hobetzea.
- Adingabeak artatu, zaindu eta babesteko trebetasunak hobetzea.
- Adingabeak zaintzeko edo babesteko defizitak artatzea.
- Familian, taldean edota testuinguru pertsonalean kaltegarriak diren eta egokitzen ez diren ohiturak, portaerak, pertzepzioak, sentimenduak eta jarrerak aldatzea.
- Norbanakoek, familiek nahiz gizarte taldeek gaitasunak lortzea eta garatzea (jarrerak, gaitasunak, ezaguerak, irizpideak, jarraibideak eta trebetasunak) familian eta gizartean modu autonomoan moldatzen, gizarteratzen eta bizikidetza egokia izaten laguntzeko.

Para responder a las situaciones sociales de familias y menores que se encuentren en alguna de estas situaciones de vulnerabilidad, riesgo de desprotección y desprotección, con los siguientes objetivos:

- Mejorar la convivencia familiar
- Mejorar las habilidades de atención, cuidado y protección de menores.
- Atender los déficits de cuidado o protección de menores.
- Sustituir hábitos, comportamientos, percepciones, sentimientos y actitudes que resulten desadaptadas y perjudiciales en el contexto personal, familiar y grupal.
- Adquirir y desarrollar capacidades (actitudes, aptitudes, conocimientos, criterios, pautas y habilidades) tanto para personas como para familias o grupos sociales, que favorezcan el desenvolvimiento autónomo, la inclusión social y la adecuada convivencia en el medio familiar y comunitario.

Kanpoan geratzen dira Udalaren kasu arduradunak zehaztu ez dituen hezkuntza ekintzak eta ekintza terapeutikoak, edo Udalaren eskumenei erantzuten ez dietenak.

Quedan excluidas las actuaciones tanto educativas como terapéuticas que no estén determinadas por la Responsable de Caso municipal correspondiente o no respondan a las obligaciones competenciales municipales.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gizarte Ekintza / Acción Social

Easo, 41 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

2.1.-Zerbitzuaren Helburuak

a) Gizarte eta hezkuntza arloko arreta eta laguntza psikologikoa besteak beste familia, hezkuntza edo afektibitate mailan oinarrizko gabeziak dituzten adingabeei eta familiei, gabezia horien eraginez adingabea arrisku edo babesgabetasun egoeran dagoenean; esku hartze egituratuen eta ebaluatuen bidez, saihesten da egoerak eta kalteek okerrera egitea.

b) Artatutako kasuetan, norbanako, familia edota taldeetarako baliabideak mobilizatzea, pertsonen guraso gaitasunak, gatazkak konpontzeko gaitasunak, autokontrola, erabakiak hartzeko gaitasuna, estresa gobernatzeko ahalmena, informazioa eskuratzeko aukerak, etab. garatuz.

c) Gurasoak gaitzea, guraso rola behar bezala bete dezaten.

d) Adingabeei laguntza espezifikoa ematea, jasan duten kalte nabarmena arintzeko edo kaltea jasateko aukerak murrizteko.

e) Familiak eta adingabeak komunitatean integratzea, laguntza sare formalak eta informalak indartzeko edo berrezartzeko eta familiaren funtzionamendua hobetzeko.

f) Zerbitzu publiko normalizatuak (osasun zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, etab.) erabiltzeko sentsibilizatzea eta tutoretza ematea.

2.1.- Objetivos del Servicio

a) Atención socioeducativa y de apoyo psicológico a familias y menores con carencias básicas familiares, educativas, afectivas, etc que conllevan una situación de riesgo o desprotección del menor. Se desarrollan actuaciones estructuradas y evaluadas para evitar el agravamiento de la situación y los daños.

b) Movilizar los recursos personales, familiares y grupales en los casos atendidos, mediante el desarrollo de las capacidades de las personas en habilidades parentales, de resolución de conflictos, autocontrol, toma de decisiones, manejo del estrés, acceso a la información, etc.

c) Capacitar a los padres/madres para que puedan ejercer adecuadamente su rol parental.

d) Proporcionar un apoyo especifico a los menores para reducir el daño significativo que han sufrido o reducir las posibilidades de que lo sufra.

e) Integrar a las familias y menores en la comunidad como forma de potenciar o restablecer las redes de apoyos formales e informales y mejorar su funcionamiento familiar.

f) Sensibilizar y tutorizar para el uso de los servicios públicos normalizados (sanitarios, educativos, etc.)

3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

3.1.- Zerbitzuaren jasotzaileak

Zerbitzu honen bidez haurrei eta nerabeei (0 eta 18 urte bitartekoak) eta haien familiei emango zaie arreta, baloratu bada babesgabetasun arrisku arineko eta/edo ertaineko egoeran daudela edo arazo horiek agertzeko arriskua dagoela.

Haurren eta nerabeen behar bereziekin erlazionatutako diagnostikoak eta/edo tratamenduak dauden kasuetan, gurasoen trebetasun gabeziak edo disfuntzioak landuko dira, baina ez desgaitasunak edo osasun mentaleko nahasmenduak berak eragindako zailtasunak edo bestelakoak, horiek eremu espezializatuari baitagozkio.

Kasu arduradunak aldez aurretik baloratu eta

3.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

3.1.- Población destinataria del servicio

Este servicio atenderá a la población de niños/as y adolescentes (de 0 a 18 años) y sus familias cuando exista una valoración de una situación de riesgo de desprotección, leve y/o moderada o en situación de riesgo de que dichos problemas aparezcan.

En aquellos casos donde existan diagnósticos y/o tratamientos relacionados con necesidades especiales de niños/as y adolescentes, se trabajarán las carencias o disfunciones de las habilidades parentales, no las dificultades de la propia discapacidad o trastorno de salud mental u otras, que corresponde al ámbito especializado.

La intervención será previamente valorada y

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

bideratuko du esku hartzea, familien eta adingabeen beharretara hoberen egokitzen diren programetan sartzeko.

orientada por parte de la persona Responsable del Caso, para el acceso a los diferentes programas que mejor se adapten a las necesidades de las familias y menores.

3.2.- Lurralde eta jarduera eremua

3.2.- Ámbito territorial y de actuación

Kontratuaren xedea aplikatzeko lurralde eremua Donostiako Udala izango da. Era berean, zerbitzua bermatuko da adingabea Donostian erroldatuta egon arren esku hartzean garrantzia duten beste pertsona batzuk beste udalerri batean artatu behar direnean (adibidez, zaintza ez daukan gurasoa beste herri batean bizi denean).

El ámbito territorial para la aplicación del objeto del contrato será el municipio de Donostia – San Sebastián. Se garantizará, asimismo, el servicio de aquellos casos en los que el/la menor esta empadronado/ en Donostia-San Sebastián pero personas relevantes de la intervención deben ser atendidas en otro municipio (p.ej. cuando el progenitor no custodio de un menor vive en otro municipio).

Zerbitzuaren osaerak kontuan izango du:

- Udaletako Gizarte Zerbitzuen eremuen banaketa.
- Kasu arduradunak bidalitako kasu guztiak artatzeko betebeharra, PHFZren programa bakoitzeko prozeduretan ezarritakoaren arabera.

La articulación del servicio deberá tener en cuenta:

- La división zonal de los Servicios Sociales municipales.
- La obligación de atender a todos los casos remitidos por la persona Responsable de Caso de acuerdo a lo establecido en los procedimientos de cada uno de los programas del SPIF.

Zentzu horretan, enpresa esleipendunak erabakiko du kasu bakoitzean zer profesionalek lan egingo duten, kasu arduradunak bidalitako laguntza eskaeran oinarrituta. Gainera, malgutasuna, mugikortasuna eta artatu beharreko pertsonenganako errespetua izango dira irizpide.

En este sentido, la empresa adjudicataria deberá asignar las profesionales que deban trabajar, valorando la demanda de atención remitida por la persona Responsable de Caso y aplicando los criterios de flexibilidad, movilidad y prioridad de las personas objeto de atención.

3.3.- Zerbitzua ematea.

3.3.- Prestación del Servicio

Zerbitzua emateko, baliabide hauek erabiliko dira:

La prestación del servicio se ofrecerá a través de :

A) Ebidentzian oinarritutako programak.

A) Programas basados en la evidencia.

Enpresa esleipendunak behar diren baliabideak jarriko ditu ebidentzian oinarritutako programak aplikatzeko, PHFZk egokitzat jotzen duenaren arabera.

La empresa adjudicataria pondrá los medios necesarios para la aplicación de los programas basados en la evidencia que el SPIF considere oportunos.

Enpresa esleipendunak programa hauek eskaini beharko digu:

Los programas que se deberán prestar por la empresa adjudicataria son:

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

- **Safe Care**. 0 - 5 urteko seme-alabak dituzten gurasoekin lan egiteko prebentzio eta tratamendu programa.
- **Incredible Years.** 4 - 8 eta 8 - 12 urteko seme-alabak dituzten gurasoentzako prebentzio eta tratamendu programa.
- **Attachment Videofeedback Intervention (AVI).** Esku hartze goiztiarreko programa, atxikimenduan oinarritua, 0 - 5 urteko seme-alabak dituzten gurasoentzat.

- **Safe Care**. Programa preventivo y de tratamiento para trabajar con padres y madres con hijos/as con edades entre 0 y 5 años.
- **Incredible Years.** Programa preventivo y de tratamiento para padres/madres y niños/as con edades entre 4 y 8 años y 8 a 12 años
- **Attachment Videofeedback Intervention (AVI).** Programa de intervención temprana basado en el apego para padres/madres con hijos/as con edades entre 0 y 5 años.

Enpresak bermatuko du programa horiek programa horietara bideratutako familia guztiei aplikatzeko.

La empresa garantizará la prestación de estos programas para su aplicación con todas las familias que sean derivadas a dichos programas.

PHFZk aurreikusita dauka ebidentzian oinarritutako beste programa batzuk gehitzea, bestelako beharrak eta ezaugarriak dituzten familiei eta adingabeei zerbitzua emateko eta enpresa esleipendunak aplikatu beharko dituenak ere eta hori egikartzeko baliabideak jarri.

El SPIF tiene prevista la incorporación de nuevos programas basados en la evidencia para dar respuesta a otras necesidades y tipologías de familias y menores que la empresa adjudicataria deberá también que aplicar y poner los medios necesarios para llevarlos a cabo.

Ebidentzian oinarritutako programak dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- Eraginkorrak direla frogatu da, eta emaitza positiboak eman dituzte; gainera, emaitza horiek baliozkotzat eta fidagarritzat jotzen dira, zientifikoki zehatza den ebaluazio metodologia baten bidez lortu direlako.
- Metodologia horren bidez frogatu da kausalitate erlazio bat dagoela gauzatutako esku hartzearen eta erabiltzaileengan lortutako emaitzen artean.
- Esku hartzeko metodologia eta prozedurak protokoloetan eta eskuliburuetan argi eta garbi jasota daude, eta esku hartzea behar duten kasuen beharretara egokitzen dira.

Son programas basados en la evidencia y que se definen como programas que:

- Han demostrado su eficacia proporcionando resultados positivos que se consideran válidos y fiables por haber sido obtenidos con una metodología de evaluación científicamente rigurosa.
- Han demostrado, a través de dicha metodología, una relación causal entre la intervención llevada a cabo y los resultados observados en los usuarios/as.
- Presenta una metodología y unos procedimientos de intervención que están claramente protocolizados y manualizados y son adecuados a las necesidades de los casos que requieren intervención.

B) Esku hartze egituratuak. Aurreko programetan sartu ezin diren familien beharrei eta tipologiei erantzuteko.

B) Intervenciones estructuradas. Para dar respuesta a las necesidades y tipologías de familias que no pueden incluirse en los programas anteriores.

Atal honetan gauzatzen diren programetan, esku hartzeak prozesua daraman profesionalak idatzitako plangintza baten bidez garatuko dira. Plangintza horretan, honako hauek zehaztuko dira: helburu

Los programas que se ejecuten en este apartado deberán ser intervenciones que se desarrollarán a través de una planificación escrita por el profesional implicado, en la que se detallen unos objetivos

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Gobierno Local - Secretaría

zehatzak, egutegia, jarduera esparru zehatz bat (banakakoa, familiakoa, etab.), parte hartuko duten eragileen zehaztapena, aplikatu beharreko baliabideen aurreikuspena, metodologia eta emaitzen ebaluazioa.

Enpresa kontratatuak familia bakoitzerako esku hartze plana diseinatu beharko du, eta koherentea izango da kasu arduradunak ezarritako helburuekin eta garatu beharreko programaren helburuekin.

Programa eta esku hartze horiek PHFZren onespena eta adostasuna izan beharko dute, baloratzeko kontratuaren helburua eta esku hartzeen efikazia eta efizientzia irizpideak betetzen dituztela eta familien eta adingabeen premiei eta zailtasunei erantzuten dietela.

Zerbitzua emateko, PHFZk ezarritako irizpideak eta iraupena bete beharko dira.

Kasu arduradunak baloratu dituen eta PHFZren programen kudeatzaileengana bideratu dituen familia eta adingabe guztiak artatu beharko dira, dagokion programan parte har dezaten, kasu arduradunak ezarritako helburuekin eta xedeekin.

3.4- Antolaketa

- Kontratistak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa eskainiko dizkio kontratuari, eta bere ardura izango dira zerbitzuaren antolaketa, egiten dituen lanen kalitate teknikoa eta emandako prestazioak eta zerbitzuak; gainera, bere gain hartuko du enpresa arriskua.
- Zerbitzuan ari diren langileen zuzendaritza eta funtzionamendua esleipendunaren eskumena dira, esklusiban.
- Kasu arduradunak erabakiko ditu kasuetan esku hartzeko prozesuarekin zerikusia duten alderdi guztiak.
- Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzua pertsonei, familiei eta profesionalen unitateei zuzentzen zaizkien esku hartzeak biltzen

específicos, una temporalidad calendarizada, un marco concreto de actuación (individual, familiar, etc.), la determinación de los agentes intervinientes, la previsión de los recursos a aplicar, metodología y evaluación de resultados.

La empresa a contratar deberá diseñar el plan de intervención para cada familia y deberá ser coherente con los objetivos establecidos por la responsable de caso, y con los objetivos del programa a desarrollar.

Estos programas e intervenciones deberán contar con la aprobación y conformidad del SPIF para valorar que respondan al objeto del contrato y a criterios de eficacia y eficiencia de las intervenciones y a las necesidades y dificultades de las familias y menores.

La prestación del servicio se deberá ajustar a los criterios y duración establecidos por el SPIF.

Deberán atenderse a todas las familias y menores valoradas por la Responsable de Caso y derivadas a las Gestoras de programas del SPIF para su participación en el programa correspondiente y con los objetivos y finalidad establecidas por la Responsable de Caso.

3.4.- Organización

- El contratista aportará su propia dirección y gestión al contrato, siendo responsable de la organización del servicio, de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados y asume el riesgo empresarial
- El poder de dirección y funcionamiento del personal adscrito al servicio será competencia exclusiva del adjudicatario.
- El/la Responsable de Caso decidirá sobre todos los aspectos relacionados con el proceso de intervención en los casos.
- El Servicio de Prevención, Infancia y Familia se sitúa en un en eje continuo y coherente que integra el conjunto de actuaciones que se dirigen a personas, familias y unidades

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

dituen ardatz jarraitu eta koherente batean kokatzen da.

- Prebentzio, Haurtzaro eta Familia Zerbitzua Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzan kokatzen da eta Zuzendaritza horren beste zerbitzuekin batera lan egiten du: Gizarteratzea, Ekintza Komunitarioa, eta Adineko Pertsonak eta Desgaitasuna.

profesionales.

- El Servicio de Prevención, Infancia y Familia se sitúa en la Dirección de Acción Social e interactúa con el resto de los servicios de la Dirección: Inserción Social, Acción Comunitaria y Personas Mayores y Discapacidad.

3.5.- Ikuspegi metodologikoa

Enpresak zerbitzua emango du ondorendo ikuspegi metodologikoarekin:

- Esku hartze sistemaren atal guztien arteko akordioa Kasu Planaren diagnostikoan eta diseinuan.
- Esku hartze sistemaren atal guztien arteko osagarritasun funtzionala.
- Esku hartze sistemaren atal guztien arteko eraginkortasun informatiboa.
- Esku hartzeak emaitzetara bideratutako dira, eta lortutako emaitzak aplikatutako esku hartzearen ondorio direla egiaztatzera.
- Esku hartzeak ahalik eta laburrenak, mugagabeki luza ez daitezen.
- Familiako kideen arteko adostasuna eta lankidetza esku hartzean.
- Ahal den guztietan baliabide normalizatuak eta familiaren ingurunetik hurbil daudenak erabiliko dira.

3.5.- Enfoque metodológico

La empresa prestará el servicio, de acuerdo con el siguiente enfoque metodológico:

- Acuerdo en el diagnóstico y el diseño del Plan de Caso entre todas las partes del sistema de intervención.
- Complementariedad funcional entre todas las partes del sistema de intervención.
- Eficacia informativa entre todas las partes del sistema de intervención
- Intervenciones orientadas al logro de resultados y a la constatación de que los resultados derivan de la intervención aplicada.
- Desarrollo de intervenciones lo más breve posibles, evitando que se prolonguen de manera indefinida.
- Acuerdo y colaboración de los miembros de la familia en la intervención.
- Utilización del máximo de recursos normalizados y próximos al entorno de la familia.

3.6.- Prozedura

Enpresak bermatuko du PHFZren familian esku hartzeko programak eta kasuak bideratzeko eta abian jartzeko prozedurak aplikatzen direla.

Familian esku hartzeko programa guztietan, prozedura orokorra honako hau izango da:

- Kasu arduradunak (psikologo komunitarioa, PHFZren psikologoa, esku hartze goiztiarreko profesionala) kasuaren balorazioa egingo du, eta, ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta, eskaera

3.6.- Procedimiento

La empresa garantizará la aplicación de los programas de intervención familiar del SPIF y sus procedimientos para la derivación de casos y su puesta en marcha.

El procedimiento general para todos los programas de intervención familiar será el siguiente:

- La Responsable de Caso (Psicóloga Comunitaria, Psicóloga del SPIF, Profesional de Intervención Precoz) realizará la valoración del caso y atendiendo a sus características específicas,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

bidaliko die PHFZren programen kudeatzaileei eta kontratatutako enpresaren koordinatzaileari.

enviarán la solicitud a las Gestoras de los Programas del SPIF y al Coordinador de la empresa contratada.

- Kasua kudeatuko duen PHFZren programaren kudeatzaileak ebatzi beharko du eskaera, programa bakoitzeko prozeduretan ezarritako epeetan, eta enpresako koordinatzailearekin koordinatuko da hezitzailea eta/edo terapeuta esleitzeko.

- La Gestora del Programa del SPIF al que se ha derivado el caso deberá resolver, en los plazos establecidos en los procedimientos de cada programa, la petición y se coordinará con el/la Coordinador/a de la empresa para la asignación del Educador/a y /o Terapeuta.

- Enpresaren Koordinatzaileak dauden profesionalen zerrenda eguneratua egingo du, eta programa eta esku hartze bakoitzean izango duten dedikazioa ezarriko du. Informazio hori PHFZren programen kudeatzaileei emango die.

- El/la coordinador/a de la empresa entregará un listado actualizado de la disponibilidad de los/as profesionales, su dedicación a cada programa e intervención, que facilitará a las Gestoras de los programas del SPIF.

- Kontratatu beharreko zerbitzuko profesionalek bete egin beharko dituzte familian esku hartzeko programa bakoitzean ezarritako prozedurak, metodologia eta ebaluazioak.

- Los/as profesionales del servicio a contratar estarán sujetos al cumplimiento de los procedimientos, metodologia y evaluaciones establecidos en cada uno de los programas de intervención familiar.

- Kontratatu beharreko zerbitzuko profesionalak esku hartzea diseinatu beharko du modu egituratuan eta sistematizatuan, agiri hauetan jasotzen denaren arabera; ekintza sekuentziatuak eta programatuak, eta esku hartze prozesuaren etengabeko ebaluazioa definitu beharko ditu.

- El/la profesional del servicio a contratar deberá elaborar un diseño de la intervención estructurada y sistematizada, según se recoge en estos pliegos, con acciones secuenciadas y programadas, y una evaluación continua del proceso de intervención.

Ebidentzian oinarritutako programetan, esku hartzea egituratuta dator jada, eta programa bakoitzeko ebaluazio sistema bat dago, programa horietako bakoitzaren jatorrizko diseinuarekiko ahalik eta fideltasun handienarekin aplikatu beharko dena.

En los programas basados en la evidencia dicha intervención ya viene estructurada y hay un sistema de evaluación por cada programa que deberán aplicar con la máxima fidelidad al diseño original de cada uno de estos programas.

- Gizarte eta hezkuntza arloko edo arlo psikosozialeko esku hartzearen iraupena programaren eta garatu beharreko esku hartzearen helburuaren araberakoa izango da.

- La duración de la intervención socioeducativa y/o psicosocial dependerá del programa y la finalidad de la intervención a desarrollar.

- Esku hartzearen jarraipena egiteko aldizkako bilerak egingo dituzte kasu arduradunak eta kontratatu beharreko zerbitzuko profesionalak; bilera horiek ezarrita datoz programa bakoitzari dagozkion prozeduretan. Helburua izango da esku hartze planaren betetze maila aztertzea, eta, hala badagokio, plana aldatzeko elementuak izatea.

- Se llevarán a cabo reuniones periódicas de seguimiento de la intervención, entre la responsable de caso y el profesional del servicio a contratar, que vienen establecidas en los procedimientos correspondientes a cada programa. Su finalidad será la de analizar el cumplimiento del Plan de intervención y , en su caso, tener elementos para modificar la misma.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

• Esku hartzea amaitzean, lorpenen ebaluaziorako eta itxierako txostena egingo dute, eta kasu arduradunari bidaliko zaio.

Kasu arduradunak koordinazio eta ebaluazio bilerak ezarriko ditu, dagokionaren arabera.

Gizarte eta Hezkuntza arloko eta arlo Psikosozialeko Arreta Zerbitzuaren profesionalek kasu arduradunarekin lankidetzan jardungo dute honako hauetan:

- Familiaren motibazio lana, programan jarraituko dutela eta haien esku jarritako baliabideak behar bezala erabiliko dituztela bermatzeko.

- Programa esku hartzearen helburuetara egokitzea.

- Helburuen lorpenaren ebaluazioa eta familiaren bilakaeraren iragarpena.

Era berean, enpresa esleipendunak kontuan izan beharko ditu jarduketa arlo beretan lanean ari diren eta kasuetarako baliabide eraginkorrak eskain ditzaketen erakundeak, elkarteak eta instituzioak, eta lankidetza sistemak eta baliabideak aprobetxatzeko sistemak objektibatu eta adostu beharko dituzte.

• A la finalización de la intervención realizarán un informe de cierre y de evaluación de los logros conseguidos que remitirá a la responsable de caso.

La persona responsable de caso establecerá las reuniones de coordinación y evaluación de caso que correspondan.

Los/las profesionales del Servicio de Atención Socioeducativa y Psicosocial colaborarán con la persona responsable de caso en:

- El trabajo de motivación de la familia para garantizar su continuidad en el programa y la adecuada utilización de los recursos que se ponen a su disposición.

- La adecuación del programa a los objetivos de la intervención.

- La evaluación de la consecución de los objetivos y el pronostico de evolución de la familia.

Asimismo, la empresa adjudicataria deberá tener en cuenta a distintas entidades, asociaciones e instituciones que estén trabajando en las mismas áreas de actuación y que sean susceptibles de ofrecer recursos eficaces para los casos, objetivando y acordando sistemas de colaboración y de aprovechamiento de los citados recursos.

4.- LOKALAK ETA EKIPAMENDUA

Enpresa esleipendunak **Gizarte eta Hezkuntza** arloko Arreta pertsonaren eguneroko bizitza eta/edo familia gunearen testuinguruan emango du. Aurrekoaren ondorioetarako, etxebizitzatzat hartuko dira familia unitatearen etxebizitza partikularra, Udalaren larrialdietarako etxebizitzak eta gizartetik bazterturik dauden familientzako bestelako ostatu-baliabideak.

Gizarte eta Hezkuntza Zerbitzua Gizarte Zerbitzu Guneetan ere eskaini ahalko da, adingabeekin eta nerabeekin elkarrizketak egin behar direnean,

4.- LOCALES Y EQUIPAMIENTO

La empresa adjudicataria realizará la prestación del Servicio **Socioeducativo** en el domicilio y en el contexto de la vida cotidiana de la persona y/o núcleo familiar. A efectos de lo anterior, se entenderá por domicilio tanto la vivienda particular de la unidad familiar, como los pisos de emergencia municipales y otros recursos de alojamiento para familias en situación de exclusión social.

La prestación del Servicio Socioeducativo también se podrá prestar en los CSS, para la atención de familias y menores que requiera un contexto privado,

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

testuinguru pribatu, konfidentzial eta segurtasunekoan. Ahal den neurrian, enpresa esleipenduneko eta tokiko erakundeko langileen ordutegiak bat etortzea saihestuko da. Horretarako, enpresa esleipenduneko eta tokiko erakundeko langileen ordutegiak bat etor ez daitezen, Gizarte eta Hezkuntza Zerbitzua Gizarte Zerbitzu Guneetan, ahal bada, arratsaldez emango da.

Era berean, Zerbitzu **Psikosoziala** GZGtan eginen da, ahal bada, arratsaldeko ordutegian. Familiei eta adingabeei arreta terapeutikoa emateko, berariazko gune bat behar da, isilpekoa eta GZGtan kokatua, familiak eta adingabeak esku-hartze sozialaren eta haur eta nerabeen babesaren esparruan kokatzeko.

Gizarte, hezkuntza eta gizarte zerbitzu eta zerbitzu psikosoziala familiekin eta adingabeekin ere emanen da, udal lokal egokituetan, talde programak egiteko, eta, behar izanez gero, enpresak ematen ahal dituen lokaletan.

Zeharkako arretak barne hartzen ditu kasuak kudeatzeko lanak, txostenak betetzea, informazioa udalaren datu baseetan erregistratzea, enpresak xedatu edo zehazten dituen bitartekoekin eginen dira.

5.- ENPRESA ESLEIPENDUNAK ETA UDALAK AURKEZTU BEHARREKO BALIABIDE MATERIALAK

Kontuan hartuta zerbitzua hainbat lekutan emango dela, enpresa esleipendunak gailu mugikor bana emango die profesionalei, zerbitzua behar bezala gauzatzeko.

Udalak material informatikoa jarriko du enpresa esleipendunaren esku, kontratu hau gauzatzearekin lotutako gaietan soilik erabiltzeko. Enpresak nahitaez erabili beharko du material hori. Udalak Intraneterako sarbidea erraztuko du, langileek familien gizarte-historiarako sarbidea izan dezaten eta historia hori osatu ahal izan dezaten

confidencial y de seguridad para la intervención. En la medida de lo posible, se evitará la coincidencia de horarios entre los trabajadores de la empresa adjudicataria y los de la entidad local. Para ello, la prestación del Servicio Socioeducativo se prestará preferentemente en los CSS en horario de tarde.

Asimismo, la prestación del Servicio **Psicosocial** se realizará en los CSS preferentemente en horario de tarde. La atención de las familias y menores a nivel terapéutico requiere un espacio especifico, confidencial y ubicado en los CSS para encuadrar a las familias y menores en el ámbito de la intervención social y de protección a la infancia y adolescencia.

La prestación del Servicio Socioeducativo y Psicosocial también se llevará a cabo con las familias y menores en los locales municipales adaptados para la realización de programas grupales y los locales que la empresa pueda facilitar en caso necesario.

La atención indirecta que incluye tareas de gestión de los casos, cumplimentación de informes, registro de información en la bases de datos municipal, se llevarán a cabo con los medios que la empresa disponga o determine.

5.- MEDIOS MATERIALES A APORTAR POR LA EMPRESA ADJUDICATARIA Y POR EL AYUNTAMIENTO

Teniendo en cuenta que la prestación del servicio se desarrollará en diversos lugares, la empresa adjudicataria pondrá a disposición de cada profesional un dispositivo móvil para una correcta prestación del servicio.

El Ayuntamiento para su uso exclusivo en cuestiones vinculadas a la ejecución del este contrato, pondrá a disposición de la empresa adjudicataria el material informático. La empresa vendrá obligada al utilizar este material. El Ayuntamiento facilitará el acceso a Intranet con el objetivo de que los trabajadores tengan acceso a la historia social de las familias y puedan completarlo.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gizarte Ekintza / Acción Social

Easo, 41 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

6.- PROFESIONAL TALDEA

6.1. Profilak eta betekizunak

Erakunde esleipendunak zerbitzuan gutxienez izango ditu: zerbitzuaren koordinatzaile 1, lanaldi osoko 4,5 psikologo eta lanaldi osoko 24,5 hezitzaile, edo horien baliokidea. Lanaldi osoak hartuko dira eskaintzak alderatzeko unitate eragile moduan.

Enpresa lizitatzaileek frogatu beharko dute Administrazioari zerbitzuak ematean ez daukatela beren giza baliabide guztiak erabili beharrik kontratua betetzeko

Profesionalen lanaldiak osoak edo partzialak izango dira, eskatu den gizarte eta hezkuntza arloko edo arlo psikosozialeko esku hartzeak behar duen plangintzaren arabera.

Enpresak bermatuko du zerbitzua arratsaldeko ordutegian emango dela, ahal dela.

Zerbitzuaren **koordinatzaileak** gizarte-zientziekin lotutako diziplinaren batean (gizarte-lana, gizarte-hezkuntza, gizarte-pedagogia, psikopedagogia, psikologia, soziologia, antropologia, erizaintza...) diplomatura edo lizentziatura bat izan beharko du, gutxienez 3 urteko esperientziarekin babesgabetasun-egoeran dauden familiekin, haurrekin eta gazteekin hezkuntzan esku hartzeko testuinguruetan.

Psikologoek Psikologiako lizentziatura edo gradua edo formazio baliokidea eskaintzen duen beste edozein titulazio izan beharko dute, eta esperientzia egiaztatua izan beharko dute gutxienez 3 urteko babesgabetasun-egoeran dauden familia, haur eta nerabeekin esku-hartze terapeutikoko testuinguruetan.

Gizarte-hezitzaileek honako titulazio hauek izan beharko dituzte: Gizarte Laneko edo Gizarte Hezkuntzako Gradua edo formazio baliokidea eskaintzen duen beste edozein titulazio, Gizarte Zientziekin lotutako edozein diziplinatan diplomaturak

6.- EQUIPO PROFESIONAL

6.1. Perfiles y requisitos

La entidad adjudicataria adscribirá al servicio al menos el equivalente a 1 coordinador/a del Servicio, 4,5 psicólogas/os a jornada completa y 24,5 educadoras/es a jornada completa. Se tomarán las jornadas completas como unidad operativa para la comparación de ofertas.

Las empresas licitadoras acreditarán que la prestación de los servicios a la Administración no supone la afectación de la totalidad de sus recursos humanos al cumplimiento del contrato.

Las jornadas de las/os profesionales podrán ser completas o parciales, dependiendo de la planificación necesaria para abordar la intervención socioeducativa o psicosocial demandada.

La empresa garantizará la prestación del servicio preferentemente en horario de tarde.

Será requisito que la persona **coordinadora** del servicio disponga de una diplomatura o licenciatura en alguna disciplina relacionada con las Ciencias Sociales (trabajo social, educación social, pedagogía social, psicopedagogía, psicología, sociología, antropología, enfermería...) con una experiencia mínima de 3 años en contextos de intervención educativa con familias, infancia y juventud en situación de desprotección.

Los/as **Psicologos/as** deberán disponer de licenciatura o grado en Psicología u otra titulación que ofrezca formación equivalente, con experiencia acreditada en contextos de intervención terapeútica con familias, niños/as y adolescentes en situación de desprotección de al menos 3 años.

Los/as **Educadores Sociales** deberán disponer de la titulación de Grado en Trabajo Social o Educación Social u otra titulación que ofrezca formación equivalente, diplomaturas o licenciaturas en cualquier disciplina relacionada con Ciencias

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

edo lizentziak, edo Gizarte eta Kultura Zerbitzuen arloko Goi Mailako Lanbide Heziketa, eta babesgabetasun-egoeran dauden familia, haur eta gazteekin hezkuntzan esku hartzeko testuinguruetan 2 urteko esperientzia egiaztatua.

Sociales o Formación Profesional de Grado Superior en materia de Servicios Socioculturales y a la Comunidad, y una experiencia acreditada de 2 años en contextos de intervención educativa con familias, infancia y juventud en situación de desprotección.

Enpesak bere langileen Sexu Izaerako Delituen Ziurtagiri negatiboak izan beharko ditu.

